

02/N Zirkularra
2021-2022

EUSKAL HERRIKO SELEKZIO ARTEKO TXAPELKETA

1. EGUNA: 2021eko azaroaren 6a
2. TOKIA: Gelbenzu, Iruña
3. ORDUA: 1. saioa: 10:00, 2. saioa: 16:30
4. IGERILEKUA: 25 m. eta 6 kale, kronometraje elektronikoz
5. PROBEN PROGRAMA

1. Saioa				2. Saioa			
1.-	50	Tximeleta	Emakumezkoak	18.-	100	Estiloak	Gizonezkoak
2.-	50	Tximeleta	Gizonezkoak	19.-	100	Estiloak	Emakumezkoak
3.-	200	Tximeleta	Emakumezkoak	20.-	100	Libre	Gizonezkoak
4.-	200	Tximeleta	Gizonezkoak	21.-	100	Libre	Emakumezkoak
5.-	100	Bulara	Emakumezkoak	22.-	50	Bizkar	Gizonezkoak
6.-	100	Bulara	Gizonezkoak	23.-	50	Bizkar	Emakumezkoak
7.-	100	Bizkar	Emakumezkoak	24.-	200	Bulara	Gizonezkoak
8.-	100	Bizkar	Gizonezkoak	25.-	200	Bulara	Emakumezkoak
9.-	200	Estiloak	Emakumezkoak	26.-	400	Estiloak	Gizonezkoak
10.-	200	Estiloak	Gizonezkoak	27.-	400	Estiloak	Emakumezkoak
11.-	200	Tximeleta	Emakumezkoak	28.-	100	Tximeleta	Gizonezkoak
12.-	200	Tximeleta	Gizonezkoak	29.-	100	Tximeleta	Emakumezkoak
13.-	50	Tximeleta	Emakumezkoak	30.-	200	Bizkar	Gizonezkoak
14.-	50	Tximeleta	Gizonezkoak	31.-	200	Bizkar	Emakumezkoak
15.-	800	Libre	Emakumezkoak	32.-	50	Libre	Gizonezkoak
16.-	1500	Libre	Gizonezkoak	33.-	50	Libre	Emakumezkoak
17.-	4 x 100	Libre	Misto	34.-	400	Libre	Gizonezkoak
				35.-	400	Libre	Emakumezkoak
				36.-	4 x 100	Estiloak	Misto

6. PARTE HARTZEA

6.1. KATEGORIAK:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
ABSOLUTUA	Adin guztiak	Adin guztiak

6.2. Txapelketa honetan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako selekzioek parte hartu ahal izango dute. Igerilari guztiek izan beharko dute denboraldi honetarako indarrean dagoen federazio-lizentzia (EIF FVN eta FNN-NIF).

6.3. Parte hartzeko markek **2020ko urriaren 1etik** izango dute balioa.

6.4. Selekzio bakoitzak bi igerilari aurkeztu ahal izango du proba bakoitzean.

6.5. Igerilari bakoitzak banakako **hiru** probetan parte hartu ahal izango du, baita erreleboko proba guztietan ere.

6.6. Selektzio bakoitzak errelebo bakarra aurkeztu ahal izango du proba bakoitzeko, eta ezarritako adinetako banakako proba batean gutxienez izena emanda dauden 2 gizonezko igerilarik eta 2 emakumezko igerilarik osatuko dute.

7. INSKRIPZIOA

7.1. Lurralde-federazioek Leverade bidez bidali beharko dute, **2021eko azaroaren 2ko 10:00ak** baino lehen, eta ez dira onartuko geroago jasotakoak.

7.2. EIF-FVNk edo FNN-NIFek izen-emateen behin-behineko zerrenda argitaratuko dute beren web orrian (www.eif-fvn.org edo www.fnn-nif.com), **azaroaren 3an (asteazkenean)**. Haietan aurkitutako akatsak EIF-FVNri edo FNN-NIFri jakinaraziko zaizkio azaroaren 4ko (**osteguna**) **10:00ak baino lehen**. Une horretatik aurrera ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

8. LEHIAKETAREN FORMULA

8.1. Serieak markaka osatuko dira.

8.2. Erlojuaren kontrako sistemarekin igeri egingo da.

9. BAJAK ETA ERRELEBO ORRIAK

9.1. Bajak idatziz eta inprimaki ofizialean jakinaraziko dira. Lehen jardunaldiko sariak lehiaketaren idazkaritzan emango dira, lehiaketa hasi baino **ordu erdi** lehenago arte. **Hurrengo jardunaldietan bajarik izanez gero, lehenengo egunean jakinaraziko dira.**

9.2. Bajak **taldeko ordezkariak edo entrenatzaileak** emango ditu (lehiaketa honetarako akreditatuta egon beharko dute), eta serie-zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuko dira.

9.3. Igerilari bat inskribatuta dagoen proban aurkeztu ezik, aurreko puntuan azaldutako moduan baja eman gabe, igerilari horrek **ezin izango du beste probetan parte hartu eguneko gainerako saioetan (erreleboetakoan ere ez), eta ez da ordezkatu.**

10. ALDAKETAK

10.1. Saio bakoitza hasi baino 30 minutu lehenago onartuko dira igerilarien ordezkapenak, lehiaketaren zuzendariari jakinarazi ondoren.

10.2. Egindako aldatetek ez dute serieen konposizioa aldatuko, eta igerilaria besterik ez da ordeztuko.

11. PUNTUAZIOAK ETA SAILKAPENAK

11.1. Banakako sailkapen bat egingo da proba bakoitzeko.

11.2. Errelebo sailkapen bat egingo da proba bakoitzeko.

11.3. Proba bakoitzeko lehen 8 sailkatuek (erreleboetan 4) puntuatuko dute. Puntuazioa izango da 11, 8, 6, 5, 4, 3, 2, 1. Erreleboek puntuazio bikoitza izango dute.

12. TROFEOAK ETA SARIAK

12.1. Sailkapen bateratuko selektzioak sarituko dira, sailkapenaren arabera.

13. ZEHAPENAK ETA AZKEN OHARRA

13.1. EIF-FVN/FNN-NIFek behar diren zehapenak jarri ahal izango dituzte gutxieneko markak edo eskatutako bestelako baldintzak faltsutzen badira.

13.2. EIF-FVN/FNN-NIFek lehiaketa-zuzendari bat izendatuko dute lehiaketa honetarako, eta agintaritzaren gorenaren izango da txapelketa antolatzen eta lehiaketako epaile-arbitroaren agintea oztzatzen ez duten erreklamazioak ebazteko.

13.3. Araudi honetan aurreikusten ez den guztia EIF-FVNren edo FNN-NIFen (lehiaketa egiten den tokiaren arabera) lehiaketei buruzko araudiak edo, hala badagokio, RFENren lehiaketen erregelamendu orokorrak arautuko dute.

13.4. Federazioek eskubidea izango dute beren babesleak kirol-materiala saltzeko stand bat jar dezan.